

JOLASTEAK EZ DU EZ GENERO EZ SEXURIK

Jolasa ikasteko egoera natural bat da.

Haur guztiek jolasteko eta ondo pasatzeko beharra dute, ez sexu ezta generoak banatuta.

BERDINTASUNA
GURE HELBURUA
DA





AURKIBIDEA


Sarrera.....	1
Zer da Hezkidetza?.....	2
Nori zuzenduta dago?.....	3
Sexu eta Generoa.....	4
Sexismoa.....	5
Zer da Jolasa?.....	6
Jolasa eta Jostailuaren erabilera sexista.....	7
Zer galdetu behar diogu gure buruari jostailuak aukeratzeko orduan?.....	8
Aukeraketaren dekalogoia.....	9-10
Jostailu sailkapena.....	11-17
Etxean egiteko jolas eta jostailak.....	18-21



SARRERA

Haur guztiek jolasteko eta ondo pasatzeko beharra dute. Horrela, bitxikeriak egiteko, sormena lantzeko, erlazionatzeko, adierazteko, bizipenak bizitzeko, pentsamenduak trukatzeko... beharra asetzen dute. Azken batean horrela mundua ezagutzen dute. Horrez gain, elementu horiek guztiek eragin sakona dute pertsonen nortasunean eta nortasunaren eraikuntzan bizitzako lehen etapetan.

Gida hau, baliabide gisa egin da joko eta jostailuen erabilera ez-sexista bultzatzeko. Gainera, zeregin hori errazteko jolas eta jostailu sexista bat hautemateko modua aztertzeaz gain, jolasen proposamen alternatiboak ere egiten dira. Balio positibo eta berdintasunezkoetan oinarritutako jolasak.





ZER DA HEZKIDETZA?

Berdintasunean, bakean eta justizian oinarritutako heziketa prozesua da, sexismoa ekiditu eta haurren arteko ezberdintasunak mugatzeko, gizarte berdintsu bat lortzeko.

- Autonomia propiorako hezi.
- Berdintasunerako hezi

Zehazki, jolasei eta jostailuei aplikatutako hezkidetzaren helburua honako hau da: Gizonen eta emakumeen eredu berriak erakustea; berdintasuna, justizia edo bakea bezalako balioen inguruan haurren garapenari lagunduz.

NORI ZUZENDUTA DAGO?

Gida hau familiei bideratutako jolas eta jostailu katalogoa da batez ere. Familietan hainbat kezka agertzen dira haurren lehenengo urteetako garapen prozesuan zer nolako jostailuak erabili behar diren aukeratzeko unean. Familietaz gain, ikastoletan erabili daiteke gida hau eta horrela familia eta hezitzaileen arteko elkarlana indartu egiten da.

Gida hau Haur Hezkuntzako ziklora bideratua dago; hau da, 0-6 urte bitarteko haurrentzako.




SEXU ETA GENEROA

Sexua: gizon eta emakume baten artean dauden desberdintasun biologiko guztietaz ari gara, adibidez: genitalak, bularrak, aldakak, ugalketa aparatua...

Generoa: sexuaren rolei buruz hitz egiteko erabiltzen da. Txikitatik haurrei bi genero desberdinetako jarrerak izatera behartzen dira, jarrera hauek behartuak eta fikziozkoak izanda. Jarrera hauek jatorri kulturala dute eta gizartea da hauek sortzen dituenak: adibidez, zein koloretan jaiotzen garen eta kolore hauek transmititzen dituzten balioak zeintzuk diren.

KOLORE **URDINA:** Egonkortasuna, sakontasuna, sakratua dena, hilkortasun eza eta boterea.

KOLORE **LARROSA:** Goxotasuna, maitasuna, eskuzabaltasuna eta adeitasuna. Pertsonaren ontasuna, sinpatia, esker ona eta edertasuna sinbolizatzen dute.




SEXISMOA

Sexismoa, ukatzean oinarritzen den diskriminazio mota bat da. Hau da, pertsona baten eskubideak neurri batean ukatzean oinarritzen da, sexua dela eta, bere adierazpenak ageriko edo ezkutuko kausak dira:

Ezkutuko diskriminazioa → Iragarkiak gehien bat, kosmetikari, kirurgiari eta publiko femeninoari zuzenduta daude.

Diskriminazio nabarmena → Zenbait enpresatan beraien politika emakumeak ez kontratatzea da, amatasun-baja dela eta.



ZER DA JOLASA?



Jolasa, ezinbesteko beharra da gizakiaren garapen motorrerako, beraz, haurraren garapena egokia izateko, jolasa beharrezkoa da.

- Jolasak gorputza eta ZENTZUMENAK GARATZEN ditu.
- Beraien gorputzarekin, objetuekin eta lagunekin, INDARRA, MUSKULUEN KONTROLA, OREKA eta beraien GORPUTZAREN ERABILERA ikasten dute.
- ADIMENAREN GARAPENA landu.
- KOMUNIKAZIOA eta SOZIALIZAZIOA indartu.
- GARAPEN EMOZIONALA landu.



JOLASA ETA JOSTAILUAREN ERABILERA SEXISTA

Jolasak eta jostailuak, modu sexista batean erabiltzen ditugu. Sexu biologikoaren arabera artifizialki rolen ikaskuntza sendotzen duten jostailuak haurrei errazten dizkiegunean. Horrela, gainerako jolasak oztopatzen edo gutxien dira, haurren gaitasun, jarrera eta balioen garapenean eragin negatiboa izanik.

Neskei sozialki esleitutako rola: pertsonak zaintzea, etxea, garbitzea...

Mutilei sozialki esleitutako rola: borroka, lehiaketa, abentura, eraikuntza, zientzia...






ZER GALDETU BEHAR DIOGU GURE BURUARI JOSTAILUAK AUKERATZEKO ORDUAN?

- Jostailua adin-tarte gomendagarrian dago?
- Bere garapenarekin batera lantzeko aproposa da?
- Genero konkretu batera bideratuta dago?
- Zer irudi eskaintzen ditu kutxak, bilgarriak edo jokoaren publizitateak?
- Zer irudikapen sinboliko dituzte irudi maskulinoek eta femeninoek irudietan eta soinetan?
- Zer rol eskaintzen ditu jolasa edo jostailua garatzeak?

AUKERAKETAREN DEKALOGOIA



1

Estereotipo sexistak ez transmititzea eta indarkeria ez bultzatzea.

2

Beste pertsonekin jolasteko erraztasuna ematen duena eta denon arteko harremanak sustatzen dituenak.

3


Lehiakortasuna sahiestea eta agresibitatea ez sustatzea, horrela, elkarrekiko harremanak sustatuz.

4

Lankidetzako harremanak sustatzea, guztion artean helburu edo asmo bera izatea, hau da, ondo pasatzea.

5

Dibertigarria eta motibagarria izatea, jolasteko gogoia pizteko.



AUKERAKETAREN DEKALOGOIA



- 6** Irudimena eta sormena lantzea.
- 7** Jakin-mina eta ikertzeko interesa piztea.
- 8** Pentsatzeko gaitasuna eta arazoak ebaztera bultzatzen duena.
- 9** Kolore ezberdineko jolasak edukitzea eta kolore zein doinuak haurrak banatzea.
- 10** Jostailuen iragarkiak agertzen direnean berdintasuna egotea nesken eta mutilen iragarkietan.





JOSTAILU SAILKAPENA

(urteka)

Haur bakoitzak garapen prozesu propioa du, horregatik gida hau bakoitzaren beharretara egokitu daiteke. Horretarako haurrak autonomia izan behar du bere garapena egin dezan eta helduek ez dituzte pausoak betetzera behartu behar.

0-6 hilabete:

Tamaina egokia izan behar dute jostailuek. Toxikoak izatea ekiditu beharra dago, haurrek haien ahora edozer sartzan dutelako. Testura atsegina eta kolore deigarriak dituztenak. Jostailuek zentzumen guztiak estimula behar dituzte haien bitartez mundua deskubritzen hasten direlako.

Gomendatzen duguna: EGURREZKO jolasak eta trapuzko panpinak.

- Panpin bigunak.
- Txintxirriak.
- Pickler pelota.
- Gimnasioa.
- Pelutxeak.
- Kolorezko pilotak zaratarekin.



6-12 hilabete:

Hilabete hauetan haurrak esertzen, katamarrez ibiltzen... hasten dira. Horrez gain ez gara ahaztu behar 0-6 hilabeteetako ezaugarrietaz.

Gomendatzen duguna:

- 0-6 hilabeteetako jolasak.
- Zarata egiten duten gauzak.
- Gimnasioa.
- Pickler arrapala.
- Panpinak.
- Jostailu bigunak.



12-24 hilabete:

Ibiltzen ikasten dute, inguruarekin erlazionatzen hasten dira, eta objektuak manipulatzeko, behatzen eta esperimentatzeko gustatzen zaie gaitasunak garatzeko. Etapa honetan gomendatzen duguna da:

- Formak sartzeko kutxak.
- Pilotak.
- Bainatzeko jostailuak.
- Panpinak.
- Testurak lantzeko.
- Txotxongiloak.



2-4 urte:

Adin horretan, etengabe probatzen dituzte beren trebetasun fisikoak, eta motrizitatea eta miaketa espaziala garatzea, beraz, egokienak joko motoreak eta psikomotrizitate lodiaren garapena dira, baita objektuak manipulatzeko. Horretarako, honako hauek gomendatzen ditugu:

- Trizikloak.
- Kuboak eta palak.
- Karretila.
- Irudi handietako liburuak.
- Plastilina.
- Panpinak.
- Arbela.
- Hegazkina.
- Kotxeak, trenak...
- Bola jokoak.



4-6 urte:

Adin tarte honetan, haurrak arreta era luzeago batean mantentzeko gaitasuna dute. Motrizitate lodia eta fina ere areagotzen dute. Etapa honetan gomendatzen ditugun jolasak:

- Ruedinak dituzten bizikletak.
- Eskulanak.
- Mozorroak.
- Buruhausteak.
- Forma eta kolore desberdinetako dominoa.
- Puzzleak.
- Plastilina.
- Liburu laburrak eta irudi askorekin.
- Soka.





**ETXEAN EGITEKO
JOLAS ETA
JOSTAILUAK**

MAKARROIZKO BITXIAK

Erabili beharreko MATERIALA:

- Makarroiak.
- Tenpera.
- Pintzela.
- Soka.



1. Hartu makarroiak eta margotu nahi duzun koloreekin.



2. Makarroi guztiak ditugunean utzi lehortzen.

3. Lehortuta daudenean sartu makarroiak banan banan sokatik.



4. Nahi duzun luzeera daukazunean, egin korapilo bat



MARIGORRINGO MOZORROA


Erabili beharreko MATERIALA:

- Zakar poltsa handiak.
- Kartulina gorriak eta beltzak.
- Grapagailua / kola.
- Artaziak.
- Ur-botila baten tapoia.

1. Hartu boltsa eta moztu buruaren eta besoen forma haurraren tamainaren arabera.



2. Tapoiarekin borobilak egin kartulinetan, gorriak jantzirako eta beltzak hegalak egiteko.



3. Moztu hegalak kartulina gorrian.



MARIGORRINGO MOZORROA



4. Itsatsi borobilak jantzitik eta hegaletik.

5. Koroa egiteko, kartulina beltzarekin 2 borobil txiki eta 2 lauki zuzen egin.

- Gorriarekin, hauraren buruaren tamainako laukizuzena egin.
- Itsatsi forma guztiak korora.



6. Itsatsi hegalak zakar poltsan.



TELAZKO PANPINA

Erabili beharreko MATERIALA:

- Tela zati txiki bat.
- Bi botoi txiki.
- Ponpoi bat.
- Kola zuria.
- Hari zati desberdinak.



1. Telaren erdian ponpoia jarri eta hari zati batekin horri eutsi.

2. Kola zuriarekin aurpegia egiteko, bi botoiak itsatsi.



3. Hari guztiak batu ilea egiteko, eta ondoren, panpinaren buruan itsatsi.



4. Apaintzeko gorbata bat jarri nahi izan ezker.







MARIGORRINGO IKASTOLA

